

Komisioen tarifak, baldintzak eta **bezeroei jasanaraz daitezkeen gastuak**

2022/11/23tik indarrean

52. EPIGRAFEA INPORTAZIOEK EDO BARNEKOEK JAULKITAKO KREDITU AGIRIDUNAK ETA STAND BY.

| ERAGIKETA KLASEA | Irekieragatik (Behin bakarrik) (Ikus 1. oharra) | | Arriskuagatik (Hiruhilekoa) (Ikus 2. oharra) | | Geroratutako ordainketagatik (Hiruhilekoa) (Ikus 3. oharra) | |
|--------------------------|---|---------|--|---------|---|---------|
| | ‰ | MINIMOA | ‰ | MINIMOA | ‰ | MINIMOA |
| | | Euroak | | Euroak | | Euroak |
| 1. JAULKIPEN EZEZTAEZINA | 7,50 | 60,10 | 2,00 | 45,08 | 5,00 | 30,05 |

| | % | Behin eragiketako |
|--|------|-------------------|
| 2. ALDAKETA (Ikus 4. oharra) | ---- | 25,00 |
| 3. DESADOSTASUNAGATIK (Ikus 5. oharra) | ---- | 45,08 |

- 1. OHARRA** Irekitze komisioa kreditu agiriduna irekitzeko agindua ematean jasoko da, eta zenbateko nagusiaren gainean kalkulatu da, gero hitzartutako tolerantzia gehituz, hala badagokio.
- 2. OHARRA** Arriskuagatiko komisioa kreditua irekitzeko ematen den unean jasoko da. Kreditu agiridunaren irekitze-dataren eta iraungitze-dataren arteko aldirako kalkulatu da. Ehuneko hiru hilekoa da, eta hilabetetan hainbanatu daiteke, epea edozein dela ere hiruhilabete bakoitzerako aplikatzen den gutxienekoa izan ezik.
- 3. OHARRA** Geroratutako ordainketaren komisioa gerorapen horren aldiaren gainean kalkulatu da eta kreditua eskuragarri denean kobratuko da. Ehuneko hiru hilekoa da, eta hilabetetan hainbanatu daiteke, ordainketa-geroratze bakoitzerako aplikatzen den gutxienekoa izan ezik, epea edozein dela ere.
- 4. OHARRA** Aldatzeagatiko komisioa kreditu agiridun baten agintzaileak hori aldatzea eskatzen badu jasoko da, edozein dela ere komisio horren zenbatekoa gehitzeagatik edo eragiketaren epea luzatzeagatik sor daitezkeen komisio gehigarrien kobraketa.
- 5. OHARRA** Desadostasunagatiko komisioa jasoko da agindu-emaileari alde aurretik kontsulta egitea eragiten duen dokumentu negoziatuetan desadostasun bat azaltzen denean, ordainketa egin aurretik edo adostasuna eman aurretik, betiere ordaintzailearekin adostu bada desadostasun horren gestioa egingo dela ordainketari uko egin beharrean. Komisio hori agindu-emaileari jasanaraziko zaio dokumentuen lagatzaileak ez badu onartzen.
- 6. OHARRA** Korrespontsal batek kreditu agiridun baten bidez egiten duen egiazko ordainketaren eta erregistratutako espainiar entitateak ordainketa hori estaltzeko dibisak eskuratzen eta kokatzen dituen data errealearen artean diren egunei dagozkien interesak kobratuko dira.

Hori guztia, edozein dela ere agindua ematen duen bezeroaren edo korrespontsal ordaintzailearen kontuan egon daitekeen saldoa.
- 7. OHARRA** Revolving kredituetan (birakariak), irekierari dagozkion komisio guztiak kobratuko dira, eta geroago berriz, berritze bakoitzean, %2,5eko komisio bat edo 24,04 euroko gutxieneko bat baino ez da jasoko "berriztatze" kontzeptuagatik.
- 8. OHARRA** Eragiketa horiek garatzean finantzazio bat burutzen bada dibisetan, 56. Epigrafearen 2. atalean jasotzen den komisioa aplikatu da.
- 9. OHARRA** Komisioak edota gastuak ez dira aplikatu Epigrafe honetan jasotako pertsona juridikoen eta pertsona fisikoen eragiketa guztiei (aginduak, transferentziak, txekak jaulkitzea, etab.), baldin eta pertsona juridikoek Bankuarekin adosten badute urriaren 28ko EHA/2899/2011 Agindua ez aplikatzea, beren lanbide- edo enpresa-jardueraren esparruan jarduteagatik komisio eta gastu batzuk itundu badira, eta komisio eta gastu horiek eragiketen zenbatekoaren, horien kopuru jakin bat burutzearen, epe jakin baten barruan burutzearen eta abarren arabera finkatzen badira, betiere itun horiek indarrean diren bitartean.